

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

KANPEZUKO UDALA

Aho batez onartzea udal igerilekuen instalazioen erabileraren lagapena eta 2026-2027 aldirako lagapenaren baldintzak ezartzen dituen hitzarmena, 2026ko irailaren 1eko osoko bilkuraren erabakiaren bidez

Mendialdea IPI Gurasoen Elkarteak (MIGE) interesa du udal igerilekuen instalazioak erabiltzeko (3790 lurzatia, Arrabal kalea 80, 2. eraikina, Santikurutze Kanpezu), zehazki, asteburuetan kirol ekitaldiak egiten diren bitartean. Hala, udalaren higiezia doan lagatzeko aukera planteatu du, Mendialdea IPI Gurasoen Elkarteak (MIGE, IFZ: G-01528603) borondatez ireki dezan.

Egiaztatu da, prozedurari atxikitako memorian, interesduna irabazteko xederik gabeko elkar-tea dela.

Ikusi da bitarteko idazkariak egindako txostena, non adierazten baita laga nahi den ondasuna korporazioaren ondasunen inbentarioan jasota dagoela eta ondare izaerakoa dela.

Ikusi da bitarteko kontuhartzaileak egindako txostena eta horren arabera, aipatutako higiezia ez dago udal aurrekontuaren kargura likidatu gabe dagoen inolako zorri lotuta.

Ikusi da udal arkitektoaren balorazio txostena, non adierazten baita ondasunak ez daudela inolako antolamendu, erreforma edo egokitzapen planetan sartuta, eta erakundearentzat ez dela beharrezkoa.

Aztertu da udal teknikariek egindako hitzarmen proposamena.

Kontuan hartu da Erakunde Publikoen Ondasunen Erregelamendua onesten duen 1372/1986 Errege Dekretuaren 109. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoa.

Kontuan hartu da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak hitzarmenei buruz ezarritakoa.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 21. artikulua ematen dizkidan ahal-menak baliatuz, honako erabaki proposamena aurkeztzen diot osoko bilkurari:

ERABAKI PROPOSAMENA

LEHENENGOA. Erabakitzea udal igerilekuen armairuen eremuaren doako erabileraren laga-pena Mendialdea IPI Gurasoen Elkarteari 2027ko maiatzera arte.

BIGARRENA. Onestea udal instalazioa lagatzeko baldintzak jasotzen dituen lankidetzat hitzar-mena aipatutako elkartearekin sinatzea eta alkateari baimena ematea hitzarmena sinatzeko eta aipatutako hitzarmena gauzatzeko eta betetzeko beharrezkoak diren izapideak egiteko.

HIRUGARRENA. Espedientea jendaurrean jartzea 15 egunez, erabakia argitaratzen den egunetik aurrera.

Proposamena aho batez onetsi da.

Santikurutze Kanpezu, 2026ko irailaren 2a

Alkatea

IBERNALO BASTERRA TXASKO